



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko apirilaren 17a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, izaera sozialeko entitateentzat kontratu publikoak erreserbatzeari buruzkoa, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Proposamena erretiratzea (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errespetatzen dezan eta errespetarazi diezaien udalei liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziburua dezan Korrikari laguntzen segituko duela, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pertsonen eta Familiaren Babesa Emateko Foru Programa bat sustatzen dezan, Ezkerreko Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan 2009an, KPIren igoerarekin, hiru urtetik beheitiko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako, Ezkerreko Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da buru-nahaste larria duten pertsonen laguntze-ko programa bat taxu dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta zaien zaintzaileei sostengua emateko prestazio ekonomikoak 2009. urtean banatzen segitzeko baimena eman eta haien, Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneratze zentroek jasotzen dituzten dirulaguntzak alda ditzan, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat aurkez dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Industria Lurzoruari buruzko Plan bat aurkez dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetako lehiakortasunari eta hobekuntzari buruzko azterlan bat egin dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa nafarren esportazio arloko jarduerak babesteko presako neurriak har ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketa guztiak egin ditzan, Nafarroan ikerkuntza biomedikoa lehiakorra izatea ahalbidetuko duen institutu bat egote aldera, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (22. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzaren hitzarmen bat sinatze aldera. Hezkuntza Batzordeak onetsia (23. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita irрати-lizentziak esleitzeko irizpideak alda ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (24).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa” izeneko sozietatea sortzeari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2009ko apirilaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luza-tzea. Aipatu foru lege proiektua 2009ko martxo-

ren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proiektua, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 103. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2009ko apirilaren 27ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2009ko martxoaren 24ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, izaera sozialeko entitateentzat kontratu publiko- ak erreserbatzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak izaera sozialeko entitateentzat kontratu publikoak erreserbatzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Izaera sozialeko entitateentzat kontratu publikoak erreserbatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez zehazten baita izaera sozialeko entitateentzako kontratu publikoen erreserba.

ZIOEN AZALPENA

Gizarte-adierazleek erakusten dutenez, gizarte-prestazioen eskaera areagotzen ari da. Horrekin lotuta, argi dago harremana dagoela langabeziaren eta gizarte-laguntzen eskaeraren artean; hori dela eta, beharrezkoa da kontuan hartzea enpleguaren galera dela bazterketa sozialaren arrazoi nagusietako bat. Horregatik da garrantzitsua, funtsezkoa, enplegarritasun mekanismoak indartzeko lan egitea.

Hala, gaur egungo krisi ekonomikoko egoeran, prestakuntza duten eta lan merkatuan esperientzia duten pertsona asko langabezian geratu dira, eta bazterketa sozialaren muga lausoan aurkitzen dira. Baina egoera hori are larriagoa da oparoaldi ekonomikoa jada enplegarritasun arazoak zituztenentzat. Datuak ukaezinak dira, eta ehunka pertsona joaten dira gizarte-zerbitzuetara eta gizarteratzearen arloan jarduten duten irabazi asmorik gabeko entitateetara. Zentro horiek, itxaron zerrendek erakusten dutenez, zailtasunak dituzte jasotzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, lan eskaintzarik edo kontraturik ez dutelako.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da laneratzeko zentroen eta enplegu zentro berezien enplegua sortzeko gaitasuna hobetzea, horiek baitira gaur egun gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonen lanerako aukerak eskaintzen jarraitzen duten enpresa bakarrak.

Administrazio publikoek eskaintzen dituzten prestazio ekonomikoak prozesu-izaera dute, eta, oinarrizko errentaren kasuan bezala, bi eskubide ziurtatu behar dituzte: prestazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea, batetik, eta laneratzeko eskubidea, bestetik.

Horrenbestez, prestazio ekonomiko horiek prozesuak dira, printzipio eta helburu argia dutenak: pertsonak gizarteratzea eta laneratzeko. Horrek esan nahi du laneratzeko mekanismoak prestazio ekonomikoa bera bezain garrantzitsuak direla. Kate bat da: osagaietako batek huts egiten badu, prozesu osoak huts egiten du.

Horrekin lotuta, Nafarroako Parlamentuak badaki noraino diren garrantzitsuak enplegarritasun-prozesuak eta kontratazio publikoak; hori dela eta, Kontratu Publikoari buruzko Legearen 51. artikulua zabaldu zuen. Horrenbestez, eta bereziki egungo zailtasun ekonomikoko egoeran, administrazio publikoek eskura dute aipatu foru legeak eskaintzen duen baliabide garrantzitsu hori, zailta-

sun sozialak dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko.

Kontratuaren erreserba ezarri zen Kontratu Publikoak Esleitzeko Prozedurei buruzko Europako Parlamentuaren 2004/18/EE Zuzentarauaren bidez, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean sartu da, zazpigarren xedapen gehigarriaren bidez.

Gainera, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 9. artikulua bidez, administrazio publikoek kontratuaren esleipenerako prozeduretan parte hartzeko aukera erreserbatu ahal izanzen diete enplegu zentro berezietan eta gizartetik bazterturik geratzeko arriskua duten pertsonak laneratzea helburu duten enpresei.

Horrenbestez, foru lege honen xedea da Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 9. artikuluan zehazturiko gaikuntza zabaltzea eta garatzea, eta, horren haritik, Nafarroako Gobernuari eta bere mendeandakoen enpresei buruzko arau bat ezartzea, eta, halaber, gomendio bat ematea foru lege honek ukitzen ez dituen baina Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 9. artikulua aplikazio eremuan dauden gainerako administrazio publikoentzat.

Proposamenaren testua

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honetan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Gobernuaren departamentuek, erakunde autonomoek eta enpresa publikoek zenbait obra, hornidura eta zerbitzuetarako administrazio-kontratuak erreserbatu behar ditu izaera sozialeko entitateentzako eta enplegu sozial babestuaren arloko programetarako.

2. artikulua. Entitate eta programa onuradunak.

Erreserbaren entitate onuradunak izanen dira: Nafarroako Gobernuan behar bezala sailkatuta eta erregistratuta dauden laneratze zentroak, apirilaren 26ko 130/1999 Foru Dekretuaren eta hura aldatu zuen otsailaren 4ko 26/2002 Foru Dekretuaren arabera. Halaber, onuradun izanen dira enplegu zentro bereziak, legez eratu eta erregistratuta badaude, Enplegu Zentro Berezien Erregelamendua onesten duen abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuaren arabera. Enplegu babestuari buruzko gainerako programek hala direla egiaztatuta behar dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

2. Erreserbaren onuradun diren enpresek aplikatzeko zaien legerian ezarritako baldintzak bete behar dituzte, eta haien xedea edo jardunak kontratuaren xedearekin zerikusi zuzena izan behar du, entitatearen araudi, estatutu edo eratzeko-arauei arabera.

3. artikulua. Erreserbaren zenbatekoa eta zehaztapena.

1. Nafarroako Gobernuak eta bere mendeandakoen enpresa publikoek urtero kontratu publikoaren diru kopuru bat gordeko dute izaera sozialeko entitateentzat.

2. Erreserbaren zenbatekoa urtero zehaztuko da aurrekontua betetzeko oinarrietan, Izaera Sozialeko Entitateen Batzordeak proposatutakoari jarraituz. Zenbatekoaren kalkulua egingen da laneratzeko zentroen eta enplegu zentro berezien fakturazio bolumenari, kudeaketa gaitasunari eta enplegua sortzeko duten gaitasunari egokituta, eta kontuan hartuko dira lan merkatuaren egoera eta gizartean bazterturik edo horrela gertatzeko arriskuan dauden pertsonen beharrezak.

3. 2009rako guztira milioi bat euroko diru kopurua ezarriko da, eta 2010erako diru kopurua bi milioi eurokoa izanen da. Urte horretatik aurrera, zenbatekoak urtero igoko dira Izaera Sozialeko Entitateen Batzordearen erabakiaren arabera, aurreko idatz-zatian deskribaturiko emaitza eta ezaugarrien ebaluazioa kontuan hartuta.

5. Ezarritakoa betetze aldera, Nafarroako Gobernuak zenbatekoak finkatuko ditu departamentu, enpresa publiko eta Nafarroako Gobernuaren menpeko erakunde autonomo edo zuzenbide publikoko entitate bakoitzerako, eta horiek betetzeari buruzko kontuak eman behar dituzte. Arau hau ez aplikatzeko justifikazio bakarrak izan ahaliko dira kontratu erreserbatuetarako lizitatzailerik ez aurkeztu izana, aurkeztutakoek sailkapen egoera ez izatea edo ez betetzea ahalmen tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak, edo ez izatea laneratze zentrorik edo enplegu zentro berezirik lizitazioaren xede den jardueraren esparruan.

6. Erreserbatutako kontratuei ezarriko zaie kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araubide juridikoa, eta ezin izanen da eskatu behin-behineko edo behin betiko bermeak eratzeko.

Lehenengo xedapen gehigarria. Izaera Sozialeko Entitateen Batzordea eratzeko.

Lege hau indarrean sartu eta hiru hilabeteko epean, 3.3 artikuluan aipatu Izaera Sozialeko Entitateen Batzordea eratuko da. Izaera soziala duten entitateentzat erreserbatutako kontratuaren ehune-

koa zehazteko organo eskuduna izanen da batzorde hori.

Nafarroako Gobernuak arautuko du aipatu batzordearen funtzionamendua eta zehaztuko du zer erakundek parte hartuko duten batzordean. Edonola ere, kontuan hartuko dira, gutxienez, Red de Economía Alternativa y Solidaria de Navarra elkarteak (REAS), Empresa y Solidaridad fundazioa eta laneratze zentroy eta enplegu zentro berezietan ordezkaritza bat.

Bigarren xedapen gehigarria. Beste entitate publiko batzuentzako gomendioak.

Nafarroako toki entitateek aplikatu ahalko dute foru lege honetan ezarritako erreserba soziala,

udalbatzaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiak ezarritakoari jarraikiz.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bitartezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko Foru Lege proposamena erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Foru Lege proposamena, pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak

aitortzeari buruzkoa." Foru Lege proposamen hori 2009ko martxoaren 31ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da errespetatzen eta errespetarazi diezaaien udalei liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errespetatzen eta errespetarazi diezaaien udalei liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

2009ko lehen hiruhilekoan, aztoramen handia izan da Nafarroako liburutegietan eta liburuzainen artean. Zenbait agiri, adierazpen eta ekintza izan dira, eta, horien eraginez, Nafarroako liburutegiak alderdien arteko borroka-gune bilakatu dira, hala ere izan behar ez luketen arren.

Garai zailak dira neutraltasun ideologikorako eta liburutegi publikoen autonomiarako, bai eta herritarrek informazioa eskuratzeko duten eskubiderako eta liburuzainek bildumak osatzeko duten

ahalmenerako ere. Egoera horrek urratu egiten ditu UNESCOren Liburutegi Publikoen aldeko Agiriaren oinarriko printzipioak (1994):

– Liburutegi publikoa erabiltzaileei mota guztietako jakintza eta informazioa ematen dien informazio gune lokala da.

– Liburutegi publikoko zerbitzuak ematen dira printzipio honi jarraikiz: pertsona guztiek dute zerbitzu horiek eskuratzeko eskubidea, kontuan hartu gabe adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila.

– Zerbitzu eta material bereziak eskaini behar zaizkie edozein arrazoiengatik ohiko zerbitzu eta materialak erabil ez ditzaketen erabiltzaileei, besteak beste: hizkuntza-gutxiengoetakoak, ezgaitasunak dituzten pertsonak edota ospitalean edo espetxean dauden pertsonak.

– Ez funtsa, ez zerbitzuak, ez dira egonen inolako zentsura ideologiko, politiko edo erlijiosoren mendean, ez eta merkataritza-presioen mendean ere.

Alarmak piztu dira, hain zuzen ere, Barañaingo liburutegi publikoan besteekin batera egon ohi ziren bi egunkari desagertu direnean. Desagerpenaren arrazoia da egunkari horiek erabat gustuko ez dituen herritar batek, zinegotzi gisa, halaxe erabaki duela. Bai eta beste herritar batek ere, Liburutegien Zerbitzuko zuzendari gisa, hala erabaki duela, ezagutzen ez ditugun arrazoiak tarteko.

Zentsuraturiko hedabideak Berria eta Gara egunkariak dira; hedabide legezkoak eta, horrenbestez, zilegiak. Berria egunkariaren kasuan, euskaraz, Nafarroako beste berezko hizkuntzan, argitaratzen den bakarra da mundu osoan, eta horrek pisuzko arrazoia izan beharko luke euskaldunek

egunkari hori irakurri ahal izan dezaten liburutegi-an, horrek askatasun gunea izan behar baitu.

Azaldutako gertaeren aurrean, Nafarroako liburuzainek kanpaina bat egin dute Nafarroako liburutegietako adierazpen askatasunaren alde, presio politikorik jasan gabe lan egiten utz diezaieten, liburuzain gisa duten prestakuntzan eta Nafarroako liburutegi publiko bakoitzeko errealitateaz duten ezagutzan oinarritutako irizpide teknikoak bakarrik erabiliz.

Liburuzainek kaleratutako adierazpenak honela dio:

“Liburutegiak, nahiz eta herritar batzuei ez gus-tatu, ez dira horrelakoak. Liburutegiek ez dute ezer baztertzen. Liburutegi publikoak ezohiko ehun batez eginak daude, merkaturatu ezin daitekeena, ideologikoa ez dena, zabaltzen den oihal bat, zentsuratzen ez duena. Horretan datza bere handitasuna, bere iragazkortasunean eta bere ahalmen mugagabea. Liburu berri bat, aldizkari berri bat, egunkari berri bat edo pentsamendu idatzi berri bat argitaratzen denean, liburutegia berehala handitzen da zentimetro batzuk, iritsi berria hartzeko eta hari tokia egiteko xedez. Hala, jada sortutakoak eta sortzeke dagoenak badu toki bat –hain zuzen, liburutegi publikoak– arnasa hartu, bere espeziekoekin (idazkien espezie zoragarria) tratua izan eta munduarentzat, irakurleentzat, irisgarria ahal izateko. Eta hala ez bada, liburutegi publikoak gaixotu egiten da, eta osatzeko terapia bakarra izanen da berriro ehuntzea jantzi elastiko hori, inoiz hautsi behar ez zuen eduki mugagabeko edukiontzi hori berreraikitzea.

Kultura da denak eta denok tokia izatea liburutegi publikoan.

Hamaika aldiz esan dugu “badela liburu bat irakurle bakoitzarentzat”, eta gure ametssetako helburua da denok izan ahal izatea liburu baten maitale, geroago ehunka libururen ohaide bihurtzeko. Zer gertatzen da, beraz, ez badago liburu bat irakurle bakoitzarentzat? Eta, are okerrago, zer gertatzen da liburu bat bada irakurle bakoitzarentzat eta irakurleari liburu hori eskuetatik kentzen badiogu?

Liburu bat, aldizkari bat, egunkari bat, esanahia duen tintaz beteriko paper bat ez bada ongi etorria liburutegi publikoetan, ez dezagun gure burua engainatu, horrek esan nahi du irakurle bat, eta beharbada beste bat, eta beste bat, gainerako-

ak bezain herritarrak direnak, ez direla liburutegi publikoetan ongi etorriak.

Ez, ez dezagun gure burua engainatu:

– Hori da liburutegiko atean debekuaeren seinalea duen soka bat jarriko bagenu bezala, eta erabakiko bagenu bezala soka hori zabaldu ala ez, nor gerturatzen den.

– Hori da lehen eta bigarren mailako liburutegiko txartelak egingo bagenu bezala, batzuk magenta kolorekoak, eta beste batzuk beste kolore batekoak.

– Hori da Liburuaren Egunean afixa handi batzuk jarriko bagenu bezala, ondoko esaldiarekin: “Irakur ezazu, baina ez irakurri dena.”

– Hori da egunkari baten irakurleari beste egunkari bat ematen badiogu bezala, guk atsegin dugun egunkaria, eta ez berak irakurri nahi duena.

– Hori da liburutegi publikoaren “publiko” hitza komatxo artean jarriko bagenu bezala, eta ez azpimarratuta, beharko lukeen moduan.”

Kultura eta Turismo Departamentuko Liburutegien Zerbitzuaren esku-hartze desegokia eta bizitu ditugun gertaerak ikusirik, eta etorkizunean berriro gerta daitezten ekiditeko, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du:

1. Errespeta dezan eta udalei errespetarazi diezaien liburuzainek liburutegi publikoak kudeatzeko autonomia, eta ziurta dezan haiena izanen dela liburutegiaren zuzendaritza tekniko eta zerbitzuen eta baliabideen kudeaketa.

2. Ziurta dezan liburuzainek kudeatzen dituzten funts dokumentalek aniztasun kulturala eta ideologikoa islatuko dutela.

3. Ziurta dezan informazioa, jakintza eta kultura libreki eskuratu ahaliko dela.

4. Ziurta dezan informazioaren gizarte demokratiko, ireki eta gardena eraikitzeke modua izanen dela.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta dezan Korrikari laguntzen segituko duela.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ziurta dezan Korrikari laguntzen segituko duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena:

Aurten egiten ari da 16. Korrika. Korrika euskararen aldeko lasterketa bat da, 2.000 kilometro baino gehiago egiten dituen euskaraz hitz egiten den lurraldeetan barrena. Korrika AEK-Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundeak antolatzen du.

Koordinakunde horrek helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko lan egiten du. Bere euskaltegietan euskarako eskolak emateaz gain, AEK-k iker-tu eta material didaktikoa sortzen du, irakasleentzako ikastaroak eta kultur ekitaldiak antolatzen ditu eta euskararen aldeko kontzientziazio kanpainak eratzen ditu.

Korrikak helburu du euskarari bultzada ematea eta kontzientzia sortzea, bai eta koordinakundearen euskaltegietan lan hori egiteko dirua biltzea ere.

Lehendabiziko Korrika 1980an egin zen, eta, harrezkero, euskararen aldeko ekitaldirik garrantzi-

tsuenetatiko bat bihurtu da, adin eta era guztietako milaka eta milaka pertsona biltzen dituen. Lasterketan zehar, korrikalariak kilometro kilometro eskuz esku aldatzen doan lekukoa daramate, atsedetik gabe, gau eta egun, hamar bat egunez.

Korrikaren aldeko diru-ekarpina kilometroak erosiz egiten dute taldeek nahiz gizabanakoek, eta, hartara, diru-ekarpina egin duenak lekukoa darama kilometro batez (esan bezala, lekukoa eskuz esku dabil, atsedetik gabe, hamar egunez).

Nafarroako Gobernuak, orain arte, diruz lagundu du, kilometro bat erosiz, euskararen aldeko lasterketa. Gaur, ustekabean, Korrikarekiko "lankidetzara oro etetea" erabaki duela iragarri du, asteburuan, Nafarroatik pasatzean, "terrorismoa goratzen zuten ekintzak eta gizarte nafarraren gehiengoaren borondatea gutxiesten zutenak" gertatu direlako.

Aurtengo Korrikak, aurrekoek bezala, agerian utzi du lasterketak gure herriaren parte handi bat mobilizatzeko ahalmena duela; izan ere, babes oso handia du eta ideologia ezberdinetako euskaltzaleek parte hartzen dute bertan. Hortaz, Korrikaren kariatara zenbait taldek egin dezaketen unean uneko erabilera oportunistak ezin zaio inolaz ere egotzi ez talde osoari ez antolakuntzari berari. Horrenbestez, gure ustez ezinbestekoa da Korrikari diruz laguntzen jarraitzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ziurta dezan Korrikari laguntzen segituko duela, euskara berreskuratzeko eta sustatzeko funtsak biltzea baita helburu; hau da, funtsak biltzea helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko, bere euskaltegietan eskolak emateko, ikertu eta material didaktikoa sortzeko, irakasleentzako ikastaroak eta kultur ekitaldiak antolatzeko eta euskararen aldeko kontzientziazio kanpainak egiteko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Pertsonen eta Familiaren Babesa Emateko Foru Programa bat sustatu dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Pertsonen eta Familiaren Babesa Emateko Foru Programa bat sustatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

MOC-00066

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

2008ko abuztutik hona etengabe hazi da langabezia Nafarroan. 2008ko otsailean baino 12.727 pertsona gehiago dago langabezian 2009ko otsailean.

CCOO sindikatuak Nafarroako Egoera Sozio-ekonomikoari buruz 2009ko martxoan egindako txostenaren arabera, langabezia tasa erreal % 11 ingurukoa da Nafarroan, biztanleria aktiboaren inkestak dioena baino nabarmen handiagoa.

37.379 langabetuetarik % 43k 40 urte baino gehiago ditu, eta horrek zaildu egiten du horien laneratzeko.

CCOO sindikatuak aurkeztutako txostenak orobat ohartarazten zuenez, badaude, egon, gizarte-larrialdiko egoerak. 2008ko laugarren hiruhileko biztanleria aktiboaren inkestak agerian uzten du 4.648 etxetan ez duela inork lan egiten, nahiz eta lan egiteko moduan egon.

2.242 familia baino gehiagok, berriz, ez dute inolako dirusarrerik —ez lansaririk, ez pentsiorik, ez prestaziorik edo langabezia-saririk—.

Bestalde, etengabe ari dira aurkeztzen enplegu-erregulazioko espedienteak. 2008an, 11.454 pertsona eten zitzaion kontratua enplegu-erregulazioko espediente baten bidez, eta hutsaldu, berriz, 2.084 pertsonari.

Askoz ere kezagarriagoa da 2009ko urtarrilean 2.004 pertsonak pairatu izana enplegu-erregulazioko espediente bat.

Lan merkatuaren narriadura izugarri hori eta enpleguen galera laugarri hori egungo produktio-ereduaren akidura eta kolapso testuinguru batean gertatu dira.

Bizi dugun krisia ez da soilik kontsumo edo inbertsio ezaren ondoriozko arazo iragankor bat, behin gaindituz gero iragan urteetako hazkunderedura itzultzen utziko duena. Adreiluaren eta diru merkearen eredia, akiduraren ondorioz, agortzen ari da.

Eredu berri, indartsuago eta jasangarriago batera igaro behar dugu, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta gizarte-politika sendoen aldeko apustuan oinarrituta.

Hori guztia gizarte-kohesioaren politikak indartuz egin behar da, halako moduz non ez den inor geldituko gizarte-babesik gabe eta laneratzeko eta prestakuntza jasotzeko bermerik gabe.

Krisiaren aurrean baliatu beharreko politikak bi oinarri izan behar ditu funtsean: gizarte-kohesioa eta laneratzeko bideratutako prestakuntza.

Nafarroako Gobernuak onartu behar du arlo horretan duen ardura, eta politika horiek indartzeko eta hedatzeko ekimenak abiarazi behar ditu.

Nafarroako Gobernuak egungo ahulezia eta ekimen-eza gainditu behar ditu, hala gizarte-babesa eta —kohesioa areagotzearen arloan nola produktio-eredua aldatzera bideratutako prestakuntza indartzekoan.

Nafarroako Ezker Batuaren ustez, beharrezkoa eta lehentasunezkoa da krisiaren aurrean Pertsonen eta Familiaren Babestearen Foru Programa bat abiaraztea, zeinaren bidez bilatuko baita laguntza ekonomikoa ziurtatzea dirusarrerarik gabeko lan-

gileei eta familiei eta prestakuntza ematea pertsona horiei produkzio-eredu berriaren esparruan laneratzea lortzeko.

Krisiaren larritasuna eta tamaina ikusita, motz gelditzen dira langabezia prestazioen eta sarien sistemak ematen duen gizarte-kohesioko mailak eta programak, eta murrizak dira orobat gaur egungo laneratze eta prestakuntza arloko programak.

Ezinbestekoak dira konprometitutako baliabideen maila areagotzeko ekintza berriak, beharrezkoa baita etorkizunik gabeko eredu ekonomiko agortu hau gainditzea.

Hori dela-eta, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gizarte eragileekin bat, krisiaren aurrean Pertsonak eta Familiak Babesteko Foru Programa bat abiaraz dezan, zeinaren bidez bilatuko baita laguntza ekonomikoa ziurtatzea dirusarrerarik gabeko langileei eta familiei eta prestakuntza ematea pertsona horiei produkzio-eredu berriaren esparruan laneratzea lortzeko.

Iruñean, 2009ko martxoaren 30ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan 2009an, KPIren igoerarekin, hiru urtetik beheitiko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan 2009an, KPIren igoerarekin, hiru urtetik beheitiko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltza-

reko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuako arduradun politikoek diote ez direla gizarte-laguntzak murriztuko, baina Gobernuaren jardun legegilea oso bestelakoa da.

Gaurko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da Hiru urtetik beherako haurrak dituzten emakume langileendako laguntzak emateko 2009ko deialdia onesten duen 100/2009 Foru Agindua.

Foru agindu horrek murrizketa handiak ezartzen ditu, 80/2008 Foru Aginduari jarraikiz 2008an emandakoekin alderatua.

Baimendutako gastua ia % 60 jaitsi da, 7.427.000 eurotik 3.062.157 eurora iragan baita.

2008an 1.800 euro eman zitzaizkien 26.000 euro baino gutxiagoko dirusarrerak dituzten familia-unitateei, eta 1.200 euro, berriz, 40.000 euro baino gutxiagokoei. 2009an, aldiz, 1.800 euro emanen zaie 18.000 euro baino gutxiagoko familiei, eta 1.200 euro, berriz, 28.000 euro baino gutxiagoko dirusarrerak dituztenei.

Alegia, 28.000 eta 40.000 euro bitarteko dirusarrerak zituzten familiek laguntza jasotzen zuten 2008an, eta aurten ez dute halakorik izanen. Milaka familiak galduko dute, beraz, laguntza.

Asko murriztu da, orobat, 1.800 euroko gehieneko laguntza jaso ahal izateko ezarri den muga –2008an 26.000 eurokoa zen, eta 2009an, berriz, 18.000koa da–; alegia, familiek, gehienez ere, 8.000 euro gutxiago irabazi behar dute, 2008an baino % 31 gutxiago irabazi behar baitute 2009an.

Nabarmen murriztu da, beraz, familia eta lana bateragarri egin ahal izatera bideratutako laguntzen finantzaketa. Murrizketa larria da gizarte-gastuari eta emakumea lan-merkatuan sar dadin laguntzeko programari dagokienez.

Familia eta lana bateragarri egitea zaila da berez, eta are zailagoa izanen da baldin eta Nafarroako Gobernuak, propaganda instituzionala gorabehera, krisi garai honetan gizarte-gastua murrizten badu.

Hori dela-eta, IUN/NEBren foru parlamentarien elkarteak ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2008ko baldintza eta diru kopuru bera balia dezan 2009an, aurreko urteko KPIren igoerarekin, hiru urtetik beheitiko seme-alabak dituzten emakumezko langileendako laguntzetarako.

Iruñean, 2009ko apirilaren 1ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da buru-nahaste larria duten pertsonen laguntzeko programa bat taxu dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita buru-nahaste larria duten pertsonen laguntzeko programa bat taxu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztatzen eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellanak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du.

Zioen azalpena

Duela gutxi, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen buruko osasunarekin zerikusia zuten zenbait plan zuzendari abian jar zitzaizkion Nafarroan.

Osoko Bilkuran izandako eztabaidan adierazi genuen moduan, funtsezkoa da plan horiek lehenbailehen abian jartzea; izan ere, gure ustez profesionalak ilusioz eta ahalegin handiz prestatu dituzte plan horiek, eta horiek abian jartzeko prozesua atzeratzeak ekidin behar diren frustrazio garrantzitsuak sortzen ditu.

Bestalde, buruko nahasteak dituzten pertsonen familiek egonezinez itxaroten dute profesionalak lehenbailehen abiaraztea arreta egokia emateko lan-planak.

Buruko osasunarekin zerikusia duten osasun-eta gizarte-laguntzaren arloan lan egiten duten taldeek adierazi digute beharrezkoa dela prozesuak lan egitea eta une bakoitzean baloratzea gaixoen aurrerapenak eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko baliabideak, bai osasunari dagokionez, bai

gizarte-gaiei dagokienez, halako moduz non erabateko koordinazioa egonen baita arlo sozialaren eta osasun arloaren artean.

Batzuetan zaila da makineria hori guztia abian jartzea, baina baliteke esperientzia mugatuagoetan lehenbailehen lan egiten hasi ahal izatea, are gehiago eskatzen diren zerbitzuak jada abian direnean. Horixe da buruko osasunaren arloak Erriberan duen egoera.

Gaur egun badira ospitaleratze zerbitzuak krisi akutuen kasuetarako, bai eta buruko osasuneko eguneko zentroa eta Errehabilitazio psikosozialeko zentroak ere, ANASAPSek eskaintzen duen gaitasunen garapenerako laguntzaz gain.

Bestalde, esan behar da oinarrizko osasun laguntzan eginiko esperientzia pilotua, eremu txiki-an lehenbizi, Nafarroako oinarrizko osasun laguntzako zentro guztietan ezarri ahal izateko gero, eredu egokia iruditzen zaigula beste espezialitate eta diziplina batzuetan ere ezartzeko, hala nola buru osasunaren arretan.

Tuterako osasun barrutiko esperientzia hori Nafarroako buruko osasunari buruzko estrategia-rekin garapenarekin eta buru-osasunaren arloko kudeaketarekin koordinatuta aurkeztu behar da, eta, edonola ere, buru-osasunaren arloan lan egiten duten profesional guztien parte-hartzearekin

prestatutako plan bat beharko da, haiek ezarritako epean lortu beharreko helburu batzuk jasoko dituen.

Plan hori Tuterako osasun barrutian abian jarri eta bertan ezarritako helburuak lortu ostean, ebaluatu egin beharko da eta beharrezkoak diren zuzenketak egin beharko zaizkio.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du diseina dezan, buru-osasunaren arloko profesionalekin lankidetzan, buruko nahaste larriren bat duten pertsonen arretarako programa bat. Programa horretan zehaztu beharko dira lortu beharreko helburuak eta horretarako behar diren baliabideak, betiere Tuterako osasun barrutiko eta buru-osasunaren arloko arduradunekin koordinatuta.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar ditzan beharrezkoak diren mekanismoak buru-osasunari buruzko esperientzia pilotu bat egiteko Tuterako osasun barrutian, Erribera osoari zerbitzua emateko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta zaien zaintzaileei sostengua emateko prestazio ekonomikoak 2009. urtean banatzen segitzeko baimena eman eta haien diru-zenbatekoa eguneratzen duen 15/2009 Foru Aginduko gutxieneko zenbatekoak berrikus ditzan.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta zaien zaintzaileei sostengua emateko prestazio ekonomikoak 2009. urtean banatzen segitzeko baimena eman eta haien diru-zenbatekoa eguneratzen duen 15/2009 Foru Aginduko gutxieneko zenbatekoak berrikus ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du.

Zioen azalpena

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 5. artikulua –Gizarte zerbitzuen sistema gidatzen duten printzipioak– honela dio:

i) Normalizazioa: gizarte zerbitzuen sistemaren lehentasuna izanen da pertsonak beraien ingurune sozial, familiar eta pertsonalean gelditzea, eta bermatzea erkidegoaren bizitzan parte har dezatela, ahal delarik.

j) Autonomia sustatzea: gizarte zerbitzuen sistema lagungarria izanen da pertsonak behar den gaitasuna bereganatu dezaten norberaren bizimodu-

ari buruzko erabaki pertsonalak hartzeko eta lehentasunak hautatzeko, baita beste arlo batzuetan (gizartean, politikan, ekonomian, lanean, kulturaren, hezkuntzan) parte hartzeko eta moldatzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legean ezarritako prestazioen finantzaketari buruzko 48. artikulua, berriz, hala dio: Nafarroako aurrekontu orokorretan eta toki entitateen aurrekontuetan kasuan kasuko gizarte zerbitzuen zorroan dauden prestazio bermatuak finantzatzeko behar diren kredituak ezarriko dira urtero, herritarren eskubide subjektiboak bermatzearen. Kreditu horiek aski ez badira prestazio bermatu horiek finantzatzeko, handitu egin beharko dira.

Hala ere, alderatzen baditugu Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta zaien zaintzaileei sostengua emateko prestazio ekonomikoak buruzko 2008ko eta 2009ko araudiak –urtarrilaren 23ko 15/2009 Foru Agindua, 2008ko diru-zenbatekoak eguneratzen dituen eta urtarrilaren 28ko 22/2008 Foru Agindua, hurrenez hurren–, aldaketa nabariak atzeman daitezke bai aurkezteko moduan bai oinarrian ekonomikoan, eta horrek dakar prestazioak nabarmen aldatzea.

Egiazta daiteke lehen mailako mendekotasun handikoentzat eta mendekotasun larriko lehen eta bigarren mailakoentzat ezarritako gutxieneko zenbatekoak murriztu egin direla 15/2009 Foru Agindua aurreikusten dituen bi prestazio motetan: familiako edo inguruko pertsonak emandako zainketak eta zerbitzu baten kontratazioarekin loturiko laguntzak. 2008ko araudian, gutxieneko laguntzak 385 eurokoak ziren mendekotasun handikoentzat eta mendekotasun larrikoentzat, edozein mailakoak izanda ere. 2009an, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak zenbateko horiek murriztu egin ditu, eta, horren eraginez, mendekotasuna duten pertsonak eta haien familiek izanen duten diru-galera da hilean 73,20 eurokoa lehen mailako mendekotasun handikoentzat, 132,82 eurokoa bigarren mailako mendekotasun larrikoentzat eta 160 eurokoa lehen mailako mendekotasun larrikoentzat.

Esan behar da Mendekotasuna duten pertsonen zainketa-zerbitzuak lortzeko eta pertsona hori-

ek zaintzen dituzten familiei babesa emateko laguntzarako deialdia onesten duen 22/2008 Foru Aginduaren bidez 2007ko dirulaguntzak luza-tu zirela, eta bertan ezarritako zenbatekoek kontuan hartzen zituztela mendekotasun handia eta mendekotasun larria, mailak bereizi gabe. 15/2009 Foru Aginduan, dirulaguntza horiek lau tartetan banatzen dira eta tarte horien artean alde ekonomikoa dago. Horren ondorioz, ezartzen diren lau azpiataletatik hirutan murrizketak egin dira, eta bigarren mailako mendekotasun handikoentzat baino ez da mantentzen 2008ko gutxieneko laguntza, 385 eurotik 389,35 eurora igaro baita.

Mendekotasuna duten pertsonak beren ardura-pen dituzten familiei ematen zaizkien dirulaguntzak murriztea foru erkidegoko eta Estatuko legeriaren printzipioen aurkakoa da, eta, gainera, unerik desegokienean egin da, ukitutako pertsonen ahu-lezia eta bizi dugun krisi ekonomikoa direla eta, horren eragina nabariagoa baita denbora eta baliabideak mendekotasuna duten pertsonen zainketarako erabili behar dituztenentzat. Neurri horren bidez zaildu egiten da mendekotasuna duen pertsonaren autonomia pertsonala mantentzea eta hura garatu ahal izateko baliabide ekonomikoak

bermatzea, eta horiek Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen bi oinarrizko printzipio dira, hain zuen, duela gutxi onetsitako foru aginduaren bidez urratzen direnak. Soilik 2009rako laguntzen luza-pena ezartzen den kasuetan ez da aldatuko likidazioa.

Horrenbestez, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du berrius ditzan Mendekotasuna duten pertsonak etxean gelditu eta zaien zaintzailerei sostengua emateko prestazio ekonomikoak 2009. urtean banatzen segitzeko baimena eman eta haien diru-zenbatekoa eguneratzen duen 15/2009 Foru Aginduko gutxieneko zenbatekoak eta gutxienez mantentzen ditzan 2008rako ezarritako zenbatekoak, gradu eta maila guztietan, legez dagozkion balio-eguneratzeak eginda bi modalitateetan, hots, familiako edo inguruko pertsonen emandako zainketenean eta zerbitzu baten kontratazioarenean.

Iruñean, 2009ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneratze zentroek jasotzen dituzten dirulaguntzak alda ditzan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laneratze zentroek jasotzen dituzten dirulaguntzak alda ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Laneratze zentroak gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonak laneratzeko oinarrizko tresna dira, eta, hortaz, garrantzi handiko zeregina dute gizarte-zerbitzuei eta Nafarroako gizarte osoari begira.

Gure ustez, gizarte-prestazioak, Eskubide Sozialen Gutun baterako 9/1999 Legearen eta hari eginiko aldatetaren filosofiarekin bat, prozesu baten parte direlako uste osoan oinarritu behar dute; izan ere, eskubide bikoitza eskatzen da: prestazio jakin bat jasotzeko eskubidea eta laneratzeko eskubidea.

Kontuan izan behar da ezen krisi egoera hone-tan egokitu beharra dagoela laneratze zentroen funtzionamenduari, eskubideei eta betebeharrei buruzko araudiaren zati bat.

Nafarroako Gobernuaren –Parlamentuan emanda-ko erantzunaren arabera– eta parlamentu-talde hau bat gatoz: enpleguaren galera da, gaur egun, gizarte-bazterkeriaren arrazoi nagusietako bat.

Gizarte-prestazio ekonomikoen eskabideen igoera eta enpleguaren galera lotuta daude. Gizarte-prestazioen eskabideek gora egiteko joera arago-tu egin daiteke hurrengo hilabeteetan, enplegua galdu duten pertsonen langabezia-prestazioak, sorospenak, laneratzeko errenta aktiboa eta beste-lako prestazioak agortzen duten heinean. Halatan, 2007ko azken hiruhilekoarekin alderatuta, oinarritz-ko errentaren eskabideak % 69 igo dira iaz.

Alarmismotik haratago, ehunka pertsona daude une honetan gizarte-bazterkeriaren mugan, eta hori da, hain zuzen ere, krisi honen eragin berezietako bat: orain arte normaltasunean bizi zen pertsona asko dago gizarte-bazterkeria pairatze-ko arriskuan.

Laneratzeko zentroek garrantzi handiko zeregi-na dutela frogatzen dute gisa horretako zenbait zentrok parlamentu-talde honek eskatuta Gizarte Gaietarako Batzordearen lan bilera batean eman-

dako datuek. Emandako datuetatik ondorioztatzen da 350 pertsona daudela itxaron zerrendan –gaur egun 128 pertsona ari dira zentro horietan lane-an–; alegia, lanean ari diren pertsonen halako hiru daude itxaron zerrendan. Zentroek emandako datuen arabera, berriz, laneratze-tasa % 35,9koa da.

Jarduketa hori, hortaz, eraginkorra da Adminis-trazioarentzat, bai gizartearen bai ekonomiaren ikuspegitik.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nua premiatzen du otsailaren 4ko 26/2002 Foru Dekretuko 41.b.2 artikulua alda dezan, laneratze zentroetan lan egiten duten pertsonentzako dirula-guntza lanbide arteko gutxieneko soldataren % 110ekoa izan dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-nuari eskatzen dio 1999tik metatutako KPIa aplika diezaien laneratze zentroek teknikariak kontrata-tzeagatik jasotako dirulaguntzei.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzar-ri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, bes-teak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parla-mento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturi-ko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu-a premiatzen baita Nafarroako Poliziaren Garapena-ri buruzko Plan bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkez-

teko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-mento-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du Lehenda-karitza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu-a premiatzen da Nafarroako Poliziaren

Garapenari buruzko Plan bat aurkez dezan legebiltzarrean.

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuak lan-talde bat osatu du, Nafarroako Toki Entitateen Maparen aldaketak aztertzeko. Aldaketa horien xedea da etorkizunean toki entitate funtzionalagoak eta eraginkorragoak lortzea, herritarrei zerbitzu hobea eman diezaieten eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko aukera gehiago izate aldera, edozein dela ere haien bizilekua.

Agerikoa da lan-talde horrek faktore asko hartu behar dituela kontuan proposamen eraginkorrak egiterakoan. Gure ustez, faktore horietan garrantzitsuena, bakarra ez bada ere, polizien arloa da, are gehiago kontuan izaten badugu Foruzaingoa lurraldean zabaltzen ari dela eta tokiko poliziek udalerrietan betetzen dituzten eginkizunak, zeinak, gure ustez, berrikusi egin beharko bailirateke,

beharrezkoa den osagarritasuna bilatzeko eta gaur egun ematen diren zerbitzuak hobetzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du hiru hilabeteko epean aurkez dezan Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean Nafarroako Poliziaren Garapenari buruzko Plan bat, zeina kontuan hartuko baitu Nafarroako Toki Entitateen Mapa berrantolatzeko sortu den lan-taldeak, foru eta tokiko kidegoen arteko koordinazioa hobetzeko eta Nafarroako Gobernuak horretara bideratzen dituen baliabideak optimizatzea ahalbidetzeko.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako Industria Lurzoruari buruzko Plan bat aurkez dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Nafarroako Industria Lurzoruari buruzko Plan bat aurkez dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkez-

tu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita Nafarroako Industria Lurzoruari buruzko Plan bat eta Programa bat aurkez ditzan, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Urtetan zehar lurzoru asko kalifikatu da industrial gisa Nafarroan, bai Nafarroako Gobernuaren ekimenez, bai arlo horretan diharduten enpresa publikoen ekimenez edo foru erkidegoko toki entitate desberdinen ekimenez.

Lurzorua lehiakortasun baldintza onenetan lortze aldera denok eginiko ahalegin horrek zenbait eragozpen ekarri ditu, ez hainbeste funtsari dagokionez –enpresak ezartzeko lurzoru bilatzea–, baina bai formari dagokionez; izan ere, gure ustez, beharrezkoa den koordinazioa falta izan da administrazio batzuen jarduna osatzeko besteenarekin eta baita sustatzaile pribatuen jardunarekin ere, horrela ahalbidetzeko inbertsio publikoak eraginkorragoak izan daitezten eta eskualde desberdinak modu harmoniko eta orekatuan gara daitezten.

Administrazioen arteko barne-lehiakortasunak, sarritan, ekidin nahi dituenak baino arazo gehiago

sortzen ditu, eta, horrexegatik, uste dugu beharrezkoa dela azterketa bat egitea erabilgarri dagoen lurzoru industrialaren egungo egoerari buruz eta udalen plan orokorren ondorioz edo Foru Administrazioaren ekimenez sortzen ari denari edo etorkizunean sortzeko dagoenari buruz.

Eta ikuspegi horretatik, garrantzitsua da lurzoru industrial mankomunatua sortzeko aukera, halako moduz non zamen eta onuren banaketa hasieratik arautuko baita, inbertsio publiko horietatik eratorritako gastuaren eraginkortasuna hobetze aldera; hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela argitzea zer egoera duen erabilgarri dagoen lurzoruak eta etorkizun hurbilean hala egonen denak, industria-jarduerak sor ditzakeen baliabideen optimizazioa eta zamak eta onurak hobeto eta modu bidezkoagoan banatzea lortze aldera.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuan Nafarroako Gobernua premiatzen du Lurzoruari buruzko Plan bat eta Programa bat aurkez ditzan, ahalbidetuko dutenak gutxienez ondoko helburuak lortzea:

1. Nafarroan erabilgarri dagoen lurzoru industrialaren –ekimen publikokoa nahiz pribatukoa– egungo egoeraren azterketa egitea.

2. Nafarroako industrialdeen katalogoa egitea, bai eskualdekoena bai tokikoena, eta bertan

zehaztea bakoitzaren egoera eta jasotzea zenbat metro koadro dituen guztira, zenbat dauden okupatuta eta zenbat erabilgarri, bai eta azken urteetan eginiko zabalkuntzak eta egiteke daudenak ere. Aldi berean, adieraziko dira industrialde bakoitzaren egoera zehatza ezagutzeko beharrezkotzat jotzen diren datuak.

3. Lurzoru industrialaren beharrari buruzko aurreikuspena edo azterketa zehaztea, eskualdeen eta udalerrien arabera.

4. Kokapen geografikoa dela-eta, industria-gune izateko interes berezia duten eskualdeak zehaztea, kontuan hartuta komunikabideek edo interesekotzat hartzen diren beste parametro batzuek eskaintzen dituzten aukerak. Eskualde horiek “aukera-eremu” gisa hartuko dira.

5. Nafarroako industrialdeak mankomunatzeko aukera aztertzea, zenbait alderdi kontuan hartuta, hala nola inbertsio publikoetarako gastuaren eraginkortasuna, enpresen lehiakortasuna hobetzeko aukera eta eskualdeen garapen harmonikoa.

6. Lursailen salmenta-prezioen erreferentzia, zehaztuta zein den lurzoruak eta urbanizazioak prezio horretan duten eragina eta zer aukera dauden lursailen erosketaren finantzaketa publikorako, halakorik balego.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresetako lehiakortasunari eta hobekuntzari buruzko azterlan bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enpresetako lehiakortasunari eta hobekuntzari buruzko azterlan bat egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nafarroan egin litezkeen enpresa-talde berriak (klusterrak) identifikatzeko azterlan bat egiteari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Gero eta sarriago entzuten da enpresa-klusterei buruz hitz egiten; hau da, ahaleginak, logistika eta azpiegiturak batzen dituzten enpresa-taldeei buruz, etorkizuneko proiektio hobea bilatzea eta, azken batean, enpresa-eremua hobekuntza helburu.

Argi dago interes komunak dituzten enpresen lan bateratuak hobetu egiten dituela enpresa horien lehiakortasun-aukerak, eta hori –interes komunak dituzten enpresa-taldeak definitzea eta argitzea–, egungo krisi egoeran, sektorea oro har eta enpresa horiek bereziki sendotzeko har daitezkeen neurri bat da.

Argi dago orobat Foru Komunitateko enpresen lehiakortasuna indartu beharra dagoela emaitza hobekuntza lortzeko badira produktuak nazioartera hedatzeari eta esportatzeari dagokienez.

Baina, horretarako, ondo aztertu beharra dago zein den gure industria-ehunaren egoera, gure enpresen interesak “batzeko eta elkarren osagarri izateko” bidean aurrera egin ahal izateko azterketa egokia egite aldera.

Azterketa sakon horrek, gure ustez, Nafarroako Gobernuak aurrena azterlan bat eta hurrena txosten bat egitea eskatzen du, enpresek erreferentzia bat izan dezaten eta, enpresek bere, kluster hori eratzeko erabakia har dezaten, horren bidez bere lehiakortasuna eta efizientzia hobetzeko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan haute-mateko eta identifikatzeko zer enpresa-elkarte era daitezkeen gure enpresen lehiakortasuna hobetze aldera, edozein sektoretan jarduten dutela ere, bai eta enpresa horien esportazio nahiz elkarren arteko lankidetzak aukerak hobetze aldera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

2009ko martxoaren 9an argitaratu zen otsailaren 26ko 75/2009 Foru Agindua, "Nekazaritza ustategiak modernizatzeko" eta "Nekazari gazteak beren gain hasteko" laguntzei buruzko arauak ezartzen dituena.

Landa Garapenaren Planetik eta, neurri handi batean, Europar Batasuneko funtsetatik datozen laguntza horiek oxigeno-baloi bat dira foru erkidego honetako nekazari eta abeltzaintzat. Hala ere, departamentuak eskaerak kudeatzeko duen moduak baditu zenbait gabezia, eta, horren ondorioz, laguntza horiek ez dira izan litezkeen bezain eraginkorrak. Besteak beste, foru erkidegoko nekazari eta abeltzainek zenbait gabezia aurkitzen dituzte batez ere administrazio-zuzemenean arloan, zeinak aipatu foru aginduaren 22. artikuluan eta hurrengoetan arautzen baitira.

Adibidez, nekazariak, dirulaguntzen eskaera departamentuan aurkeztu eta akatsik izanez gero,

hilabeteko epea du akats hori konpontzeko. Aldiz, proiektua aurkezteko beharrezkoa da eskatzailearen esku dagoen dokumentazioaren akatsak konpontzeaz gain, erabat izapidetuta izatea Administrazioaren esku dauden auzi guztiak, hala nola exekuzioa eta obra lizentziak, eta horrek esan nahi du eskatzailearen batek arriskuan ikus dezakeela bere proiektua Administrazioaren baten atzerapena dela eta.

Era berean, Administrazioak proiektua abiarazi baino lehen aplikatu beharreko kontrol batzuk ere ezartzen ditu dekretuak. Ulertzekoa da Administrazioak ikuskatu nahi izana proposatutakoa egiazki eginen den, baina horretarako epe bat izan behar du; hau da, proiektua onetsi eta hilabeteko epean Administrazioak ez badu egiten aurretiazko kontrola, obrak hasteko baimena eman beharko litza-teke.

Erantzuteko epea ia bederatzita hilabetekoa da, eta, horrenbestez, eskatzaileak ezin ditu bere proiektuak abian jarri epe horretan.

Garrantzitsua da eskatzaileei idatziz eta epe laburrean jakinaraztea beren proiektua onartua izan den ala ez; izan ere, horrek ahalbidetuko luke eskatzaileak bitartean bestelako finantzaketa sistemak bilatu ahal izatea.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak, eta, zehazki, Landa Garapenerako eta Ingu-rumenerako Departamentua, premiatzen du ingurumen laguntzak kudeatzeko prozeduraren gabeziak konpon ditzan, ondoko irizpideak kontuan hartuta:

1.- Eskaerak onartzea eta horiek betetzat jotzea, betiere eskatzaileak bere esku dauden zuzemen guztiak egin baditu, eta ez hartzea akats gisa, epeari dagokionez, Administrazioaren esku dauden prozedurak.

2.- Erantzutea proiektua onartu den ala ez gehienez ere hiru hilabeteko epean, halako moduz non onuradunak, egokitzen jotzen badu, bankuentitateekin negoziatu ahalko baitu zubi-kredituen edo edonolako finantzaketaren izapidetzea.

3.- Administrazioak dirulaguntza onetsi eta gehienez ere hilabeteko epean egitea lanak hasteko baimena eman aurretiko kontrolak, kontuan hartuta lanak hasteko beharrezkoa dela kontrol horiek gainditu izana.

4.- Espediente guztiei erantzutea. Gaur egun, behin aurrekontua amaituta, gainerako espedien-

teei ez zaie erantuzten. Kasu guztietan erantzunen da, jakinarazpen edo onespren horrekin –hurrengo aurrekontuetan sartuko da– bankura joan ahal izateko aurrefinantzaketa eskatzera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa nafarren esportazio arloko jarduerak babesteko presako neurriak har ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enpresa nafarren esportazio arloko jarduerak babesteko presako neurriak har ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduari jarraikiz, honako mozio hau aurkeztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita enpresa nafarren esportazio arloko jarduerak babesteko presako neurriak har ditzan, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Bilakaera ekonomikoari buruzko datuen artean, bada bat batzuetan oharkabean pasatzen dena, nahiz eta oso garrantzitsua izan, Nafarroako ekonomiaren ezaugarri bereziak direla eta. Datu

hori gure enpresen esportazioen bolumenari buruzkoa da. Ez da soilik errealitatearen ebaluazioa, etorkizunerako adierazle bat baizik; izan ere, esportatzeko ahalmena eta esportazioen arrakasta dira gure eskualdeetako ekonomiaren bultzadaren oinarria.

Horrekin lotuta, sozialista nafarrak arduratuta gaude argitaratutako azken datuekin, adierazten baitute Nafarroako esportazioak % 32 murriztu zirela iragan urtarrilean, 2008ko urtarrilarekin alderatuz gero. Ez da kontsolagarria Estatuko bilakaeraren egoera berean egotea, Nafarroako eta Espainiako mekataritza-balantzen arteko desberdintasunak ohikoak baitira.

Edonola ere, kontuan hartu behar da 2008an Nafarroako esportazioak % 11,4 handitu zirela, 2007. urtearekin alderatuta. Baina joera hori alderantzikatu egin da aurtengo urtarrilean,; izan ere, iazko urtarrilarekin alderatuta, esportazioak % 32 baino gehiago murriztu dira. Ez zaigu egokia iruditzen ezen, erakunde publikoek har baditzakete neurri politikoak gure enpresen ahalmen esportatzaileari laguntzeko, halakorik hartu ez eta 2009a amaitu arte zain egotea, joera berresten den ikus-terko.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa nafarren esportazio arloko jarduerak babesteko presako neurriak har ditzan, enpresei ematen zaien laguntza, erakundeena eta bestelakoa, handitu eta hobetu dezan, Nafarroako Enpresa Nazioartera ateratzeko Pla-

naren estrategia azkartu eta egokitu dezan, eta Gobernuako departamentuen, Gobernuaren mendeko sozietateen eta entitateen eta harekin lankidetzan jarduten duten agentzia eta erakundeen jarduna optimizatzeko baliagarriak izanen diren neurriak har ditzan. Halaber, premiatzen da arreta

berezia jar diezaien atzerriko merkatuetan egoteko laguntzei eta esportazioen sustapenean eragina izan dezaketen enpresen jardueren finantzaketari.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko jarduketa guztiak egin ditzan, Nafarroan ikerkuntza biomedikoa lehiakorra izatea ahalbidetuko duen institutu bat egote aldera.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin beharreko jarduketa guztiak egin ditzan, Nafarroan ikerkuntza biomedikoa lehiakorra izatea ahalbidetuko duen institutu bat egote aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, mozio bat aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onetsi dezan. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urtebeteko epean, Ikerketa Biomedikorako Zentroa eraiki bitartean, beharreko jarduketa guztiak egin ditzan 339/2004 Errege Dekretuan ezarritako baldintza guztiak betetzeko, Nafarroan ikerkuntza biomedikoa lehiakorra izatea ahalbidetuko duen institutu bat egote aldera.

Zioen azalpena

Ikerketa biomedikoa funtsezko tresna da gure bizi-kalitatea eta -itxaropena hobetzeko, eta Nafarroako Alderdi Sozialistak ikerketa biomedikoaren arloko proiektuak defendatu eta babesten ditu.

Proposatzen duguna da Nafarroan egiten den ikerketa biomedikoa nazioarteko eta nazioarteko ikerketa-sareen bikaintasunean egotea.

Nafarroako Gobernuak egiaz bultzatu nahi badu ikerketa eta arlo horretan asmo handiak izan nahi baditu, bere helburua izan behar da gure ikerketa nazionalaren eremuan egotea.

Nafarroako Alderdi Sozialistak proposatzen du laster Nafarroan sortuko den Ikerketa Biomedikorako Zentroa institutu bihurtzea eta, ikerketa biomedikorako institutu izatearen ziurtagiria lortuta, ikerketarako institutuen sare batean sartu ahal izatea, eta ziurtagiri hori erabiltzea bere ikerketa-jarduerak zabaltzeko.

Ziurtagiri hori ikerketaren finantzaketa egokia- ren bermea da, eta ziurtatzen du baliabide publikoen erabilera egokia, praktika ikertzaile zuzena eta ikerketaren emaitzak praktika klinikora transferitzen direla.

Ziurtagiria lortzen duten institutu guztiak identifikatzen dira bikaintasuneko erakunde ikertzaile gisa, eta horien adierazleek, ikerketa-jardueraren kalitateari, eraginkortasunari, efizientziari, eta egokitasunari dagozkienek, ahalbidetzen dute helburuak hobeto planifikatzea eta dirulaguntza publiko- en bidez finantzatutako baliabideak modu ezin hobean kudeatzea.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtebeteko epean, Ikerketa Biomedikorako Zentroa eraiki bitartean, beharreko jarduketak guztiak egin ditzan 339/2004 Errege Dekretuan ezarritako baldintza guztiak betetzeko,

Nafarroan ikerkuntza biomedikoa lehiakorra izatea ahalbidetuko duen institutu bat egote aldera.

Iruñean, 2009ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2009ko apirilaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du elkarrizketak has ditzan Extremadurako Juntarekin, hezkuntza administrazioan software librea erabili eta hedatzeko lankidetzak hitzarmen bat sinatze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita irrati-lizentziak esleitzeko irizpideak alda ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2009ko apirilaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita irrati-lizentziak esleitzeko irizpideak alda ditzan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita irrati-lizentziak esleitzeko irizpideak alda ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak emaniko bi txostenei jarraituz, irrati-lizentzien etorkizuneko esleipenetan, aintzat har dezala programazio osoa euskaraz ematen duen irrati bat, eta horretarako kontuan har dezala azken hamarkadetan irratia arloan euskararen alde egindako lana.